

erren la zabal zazu



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

VICERRECTORADO DE CALIDAD E INNOVACIÓN DOCENTE
KALITATE ETA IKASKETA BERRIKUNTZAKO ERREKTOREORDEZTA

Servicio de Evaluación Docente
Irakasiana Ebaluatzeko Zerbitzua

IRAKASLEEN IRAKAS-JARDUERAZ IKASLEEK DUTEN IRITZIARI BURUZKO INKESTA

Ikasleen Iritzi Inkestarako Aplikazio Berritua (AROA)
erabiltzeko irakasleentzako eskuliburua

AURKIBIDEA

Sarrera

Glosategia

I. Atala. Irakaskuntza-egoeren kontsulta

II. Atala. On-line bidez txostenak nola eskuratu

SARRERA

2006/07 ikasturtean, *Irakasleen irakas-jardueraz ikasleek duten iritziari buruzko* inkesta GAUREn sartu zen, prozesua azkarragoa izateko, galdetegi gehiago erabili ahal izateko, txosten osatuagoak egiteko eta txostenak eskuratzeko on-line sistema sortzeko.

Iritziak jasotzeko ikastegiak aukeratu duen sistemaren arabera, irakaskuntza-egoerak edota hitzorduak begiratu ahal izango dituzte irakasleek GAUREn, ikasleek iritzia eman baino lehen.

Eskuliburu honen bidez, GAUREn begiratzen lagundu nahi zaie irakasleei; gainera, txostenak on-line eskuratzeko zer egin behar den azaltzen du eskuliburuak.

Bukatzeko, jakinarazi behar da 2006/07 ikasturtetik aurrerako txostenak paperean baino ez daudela, beraz, beharrezkoak izanez gero, Irakaslana Ebaluatzeko Zerbitzuari (aurrerantzean, IEZ) eskatu beharko zaizkio, ohiko bideak erabiliz.

GLOSATEGIA

Autopasea

Sistema honen bitartez, irakasleak ikasleen iritziak jasotzen ditu IEZk ezarritako prozedurari jarraituz.

Kanpaina

Kanpaina esaten zaio inkesta prestatzeko, iritziak jasotzeko eta iritziak aztertzeko prozesua egiteko erabiltzen den denboraldia. Gehienetan, ikasturtearekin bat dator.

Eredu-galdetegia

Datu-orri bat da, eredu-galdetegiak irakaskuntza-egoeraren datu guztiak jartzen ditu. Era berean, irakaskuntza-egoera bakoitza ikasleen iritziekin batzen du.

Irakaskuntza-egoera

Irakaslea-Irakasgaia-Taldea kateak osatzen du irakaskuntza-egoera. Beraz, irakasle batek irakasgai bera talde bitan emanez gero, bi irakaskuntza-egoera izango dira, eta irakasgai bat irakasle bik ematen dutenean ere bi irakasgai-egoera izango dira. Irakaskuntza-egoeraren txostenetan agertzen den laburdura IE da.

Taldekako irakaskuntza-egoera

Irakasgai berebetean irakasle batek baino gehiagok eskolak ematen dituen egoera bat da.

Itxitako irakaskuntza-egoera

Termino honek bi esanahia ditu. Alde batetik, esan nahi du irakaskuntza-egoera batek ez duela bete beharreko baldintzak ikasleen iritzia jasotzeko, hau da: gutxienez 5 ikasle egotea matrikulatuta eta irakasleak 8 orduetik gorako irakaslana egitea taldean eta bestetik, sistema dagoeneko ikasleen iritzia grabatuta dagoela.

Konparazio mota

Txosten bakoitzaren eskuinaldean, grafiko bat dago, txostenaren batezbestekoa eta guk aukeratzen dugun taldeak duena alderatzen dituena. Esate baterako: irakaskuntza-egoeraren aztertzen duen txosten batean, irakasgaia, taldea, titulazioa, ikastegia, etab. alderatu daitezke.

Talde mota

Irakasle batek ematen duen irakaskuntza mota adierazten du,. Hauexek dira aukeran dauden irakaskuntza motak

T: teoriko

M: magistrala

S: mintegia

PA: gelako praktikak

GO: ordenagailuko praktikak

PTI: taller industrialeko p.

PTA: arte-tailerreko praktikak

PCA: landa praktikak

PCL: praktikas klinikoak

LP: laborategiko praktikak

PO: ordenagailuko praktikak

TA: tallerra

TI: taller industrial

Talde praktikoko segida


Praktiketarako azpitalde bat baino gehiago egonez gero, adierazi azpitalde bakoitzaren ordena. Erabili zenbakiak: 1, 2, 3, etab. Talde teorikoetan (T) 0 jartzen du.

1. ATALA.- IRAKASKUNTZA-EGOEREN KONTSULTA

IEZk lauhilero kargatzen du bere sistema informatiko propioan (AROAn) GAUR aplikazioaren barruan “irakaslana” atalean dagoena. Behin karga hau eginda, IEZk irakasle guztiei mezu bat bidaltzen die posta elektronikoz jakinarazteko kargatutako irakaskuntza-egoerak kontsultatzeko prest daudela, alde batetik, irakasleek GAUREn dagoen irakaskuntza-enkargua zein den jakin dezaten eta, bestalde, egiaztatzeko ondo grabatuta dagoenez; horrela ez bada, sailari jakinarazi behar zaio. Ikasturtearen amaieran ikasleen txostenak egin ahal izateko behar-beharrezko da GAUREn informazioa behar bezala izatea. Inkestataile-sistema duten ikastegiei irakaskuntza-egoeren hitzordua ere jakinarazten zaie (eguna, ordua eta ikasgela).

Jarraian jartzen du aipatutako kontsultak nola egin behar diren:

1. GAUREn sartzeko helbidea <http://gestion.ehu.es/gaur> da. Hizkuntza aukeratu behar dugu. Horren ondoren, hurrengo leihoa agertuko da, eta erabiltzaile-izena eta pasahitza eskatuko dira. Irakasle bakoitzak erabiltzailearen kode bat eta pasahitz bat du, eta GAUREn egingo duen beste edozein gestiorako esleitu zaion berbera izango da.




2. Erabiltzailearen izena eta pasahitza idatzi ondoren, hurrengo pantaila agertuko da. Ezkerreko arbolan, “Inkestak” sakatu behar da lehenengo; horren ondoren, “Irakasleen kudeaketa”; eta, bukatzeko, “Irakaskuntza-egoerak kontsultatu”. Hori egin ostean, leiho bat zabalduko da. Irakaslearen datuak, kanpainaren identifikatzailea (gehienetan, ikasturtearekin bat etorriko da bakoitza) eta deskribapena agertuko dira leiho horretan.

[GAUR] - Microsoft Internet Explorer

Archivo Edición Ver Favoritos Herramientas Ayuda

Atrás Búsqueda Favoritos Ir


Dirección: https://gestion-servicios.ehu.es/pls/entrada/sasw0050.menu?p_sesion=939c91a79d51a9929e999ba29391a39b86a9aa7d9b99767d95898486826e8a75908f6999748 Ir Vinculos >>



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

G.a.u.r.


- Irakaskuntza-eskaintza
- Ikasketak
- Matrikulak
- Inkestak
- Eskuliburua
- Txostenak
- Irakasleentzako kudeaketa
- Irakaskuntza-egoerak kon**
- Sarrerak
- Azterketak
- Erabiltzailea eta pasahitza aldatu
- Irten



3. Aurtengo ikasturtearen kanpaina aukeratu behar da, "Kanpainaren identifikazioa" atalaren azpian eta laguntza-leiho bat bistaratuko da azaltzeko hurrengo pantailen helburua zein den, beti ere iritziak jasotzeko ikastegiak aukeratu duen sistemaren arabera.

4. Jarraritu baino lehen ezinbestekoa da laguntza-lehioa arretaz irakurtzea.

5. "Aceptar" botoia klik egin ondoren, leiho bat bistaratuko da irakaslearen irakaskuntza-egoerakin. Inkesta egiteko sistemaren arabera dago antolatuta informazioa.




5.1. INKESTATZAILE-SISTEMA DUTEN IKASTEGIEK

Irakaskuntza-egoerari dagokionez jakinarazten da inkesta-gai denetz (kontuan hartuz gutxienez 5 ikasle matrikulatuta egon behar direla eta irakasleak 8 orduetik gorako irakaslana eman behar duela taldean. Irakaskuntza-egoerak Inkesta-gai izanez gero, jarrita dago zein den hitzordua (eguna, ordua eta ikasgela).

Leiho honetatik irakasleek 3 gestio egin ditzakete: hitzordua aldatu, GAUREn txarto dagoen irakaskuntza-egoerari baja eman (adibidez, irakasleak irakasgaia ez badu ematen) edo alta eman GAUREn irakaskuntza-egoerari, behar den bezala grabatuta ez badago. Aldaketa hauen helburua inkestako landa-lana burutzeko baino ez da eta ez dakarte, inolaz ere, GAUREn ofizialki grabatuta dagoena zuzentzea edo eguneratzea.


5.1.1. Hitzordua aldatzeko proposamenak (ALDATU botoia): eguna aldatzeko eskatu ahal izango da, justifikatutako arrazoiren bategatik (baja, biltzarren batera joatea, irakasle bisitarien estantziak, etab.) aukeratutako egunetan joango ez bada. Hitzordua "Aldatu" botoian klik egin eta pantaila bat zabalduko da; pantaila horretan, hiru egun proposatu ahal izango ditugu.




Nahitaezkoa da aldaketaren arrazoa idaztea. Eskolako azkenaurreko asterako edo azken hirugarrenerako proposatuko dira egunak 8 eskola-aste baino gehiago dituzten irakasgaietarako, eta azkenaurreko asterako 8 baino gutxiago dituztenetarako. Horrela egiten ez bada, ausazko egun bat esleitu da eskolako azken astean.

Irakasgai bat hainbat irakaslek ematen dutenean (taldekako irakaskuntza-egoera), une hartan eskolak ematen ari den irakasleari esleitu zaio hitzordua; beraz, irakasle horrek baino ez du izango aldaketak proposatzeko eskumena. Hitzordua esleitu ez duen irakaslea aldaketaren bat egiten saiatzen bada, sistemak horren berri emango dio.

- 5.1.2. Irakaskuntza-egoerak bertan behera uzteko proposamenak (BAJA EMAN botoia) irakaskuntza-egoera bat bertan behera uzteko proposamena egin daiteke, agertzen den irakaskuntza-egoeraren bat irakasleari ez badagokio —GAUREN gaizki grabatuta dagoelako edo jakinarazi gabeko azken uneko aldaketak egon direlako—. Hitzordua “Baja eman” botoian klik egingo da, eta pantaila bat zabalduko da, hitzordua bertan behera uzteko arrazoa emateko. IEZK proposamena aztertuko du, eta posta elektronikoaren bidez emango du ebazpenaren berri.



5.1.3. Irakaskuntza-egoeretan izena emateko proposamenak (ALTA EMAN botoia): irakaskuntza-egoera guztiak agertzen ez badira, alta eska daiteke.



“ALTA EMAN” botoian klik egin, eta pantaila bat zabalduko da. Pantaila horretan, gure kasua aukeratu beharko dugu: ikastegia, titulazioa, zikloa, maila, irakasgaia, talde praktikoa eta talde praktikokoaren segida. IEZk proposamena aztertuko du eta posta elektronikoaren bidez emango du ebazpenaren berri. Irakasleek ezingo dute ikusi proposatutako egoera hori, IEZk ontzat eman arte.

Gogora ezazu aldaketa horien helburua inkestako landa-lana burutzeko baino ez dela eta ez dakartela, inolaz ere, GAUREn ofizialki grabatuta dagoena zuzentzea edo eguneratzea.

Aipatutako zuzenketak sailen bitartez burutu behar dira eta ezinbestekoak dira ikasturtearen amaieran ikasleen iritzien txostenak egin ahal izateko.

5.2. “AUTOPASE” IZENeko SISTEMA DUTEN IKASTEGIAK

Irakaskuntza-egoerari dagokionez jakinarazten da inkesta-gai denetz (kontuan hartuz gutxienez 5 ikasle matrikulatuta egon behar direla eta irakasleak 8 orditik gorako irakaslana eman behar duela taldean. Era berean jakinarazten da zenbat galdetegi-eredu bidaliko diren ikastegira, GAUREn grabatutako ordutegi jarraituz.

Aurreko laguntza-leihoan agertzen den duen moduan, Autopasea daukaten ikastegiko irakasleek EZIN izango dute alta edo baja eman sisteman. Txarto baldin badago grabatuta irakaskuntza-enkarguaren daturen bat edo beste jo beharko lukete sailera haiek zuzendu dezaten. Hala ere, ikasleei egingo diete inkesta eredu-galdetegirik gabe.

5.3. "ON LINE" SISTEMA DUTEN IKASTEGIAK

Irakaskuntza-egoerari dagokionez jakinarazten da inkesta-gai denetz (kontuan hartuz gutxienez 5 ikasle matrikulatuta egon behar dela eta irakasleak 8 orduetik gorako irakaslana eman behar dituela. Leiho honetatik irakasleek 2 gestio egin ditzakete: GAURen txarto dagoen irakaskuntza-egoera bat baja eman (adibidez, irakasleak irakasgaia ez badu ematen) edo alta eman GAURen irakaskuntza-egoera bat ez dagoenean behar den bezala grabatuta. Aldaketa hauen xedea ez da inolaz ere GAUR zuzentzea, baizik eta ikasleek interneten bidez galdetegia bete dezaten klabeak sortzea.

5.3.1. Irakaskuntza-egoerak bertan behera uzteko proposamenak, **BAJA:EMAN** irakaskuntza-egoera bat bertan behera uzteko proposamena egin dezakegu, agertzen den irakaskuntza-egoeraren bat ez badagokigu —GAURen gaizki grabatu delako edo jakinarazi ez diren azken uneko aldaketak egon direlako—. Hitzordua baja botoian klik egingo dugu, eta pantaila bat zabalduko da, hitzordua bertan behera uzteko arrazoa emateko. IEZk proposamen hori aztertuko du, eta posta elektronikoa bidez emango du ebazpenaren berri.

The screenshot shows the GAUR web application interface. The browser title is "[GAUR] - Microsoft Internet Explorer". The address bar shows the URL: "https://gestion-integracion-servicios.ehu.es/pls/entrada/sasw0050.menu?tp_session=939e91a89653a792a29197a29391a39b86a9ab799b9c777898888486826e8a7591".

The page content includes a navigation menu on the left with the following items: "Gaur", "Irakaskuntza-egokaitza", "Inkestak", "Eskuliburua", "Txostenak", "Irakasleen kudeaketa", "Irakaskuntza-egoerak kon", "Sarrerak", "Azterketak", "Erabiltzailea eta pasahitza aldatu", and "Irten".

The main content area has a header "Kanpainaren identifikazioa / Irakaslearen datuak" with an "ATZERA" button. Below this is a table with columns "Kanpaina", "NAN", and "Izen-abizenak". The table contains one row with the value "provisionaldefinitiv".

Below the table is a section titled "Proposatutako hitzordua" with the following details:

Ikastegia:	352 - Leioako Erizaintzako Unibertsitate Eskola	Zikloa:	1. zikloa	Maila:	2. maila
Titulazioa:	ENFER202 - Erizaintzan diplomatua				
Irakasgaia:	15947 - Elkarte mailako osasuna I				
Taldea:	02 - Teoriakoa				
Gela:	01H11	Data:	2007ko maiatzaren 15ean	Ordua:	12:30
		Tipo		Cita:	Inkestazailak

Below the table is a section titled "Irakaskuntza-egoera kentzeko eskaera" with a form containing the labels "Kentzeko arrazoa:" and "Ados".

5.3.2. Irakaskuntza-egoeretan izena emateko proposamenak, **ALTA EMAN:** dagozkigun irakaskuntza-egoera guztiak agertzen ez badira, egoera horietan alta eska dezakegu.

Alta botoian klik egin, eta pantaila bat zabalduko da. Pantaila horretan, gure kasua aukeratu beharko dugu: ikastegia, titulazioa, zikloa, maila, irakasgaia, talde praktikoa eta talde praktikokoaren segida. IEZk proposamen hori aztertuko du, eta posta elektronikoki bidez emango du erantzunaren berri. Irakasleek ezingo dute ikusi proposatutako egoera hori, IEZk onatzen eman arte.

Gogora ezazu aldaketa horien helburua inkestako landa-lana burutzeko baino ez dela eta ez dakartela, inolaz ere, GAUREn ofizialki grabatuta dagoena zuzentzea edo eguneratzea.

Aipatutako zuzenketak sailen bitartez burutu behar dira eta ezinbestekoak dira ikasturtearen amaieran ikaslearen iritzien txostenak egin ahal izateko.

2. ATALA.- ON-LINE BIDEZ TXOSTENAK NOLA ESKURATU

2006/2007 ikasturtetik, hauexek dira eskura dauden txostenak:

- **Irakaskuntza-egoeraren txostena.**- UPV/EHU inkesta egiten hasi zirenetik orain arte egindako oinarriko txostena da. Irakasleak eskolak ematen dituen irakaskuntza-egoera (irakaslea-irakasgaia-taldea) bakoitzeko txosten bana eskuratzen du. Txosten bakoitzaren erreferentzia dagokion teoria-taldea da; beraz, azpitaldeen irakaskuntza txosten bakarrean biltzen da.
- **Irakaslearen txostena.**- Bi zati ditu. Lehenengoan irakasle horrek sortutako irakaskuntza-egoeraren txosten guztien batezbestekoa adierazten da, grafiko eta zifra baten bidez. Txostenaren bigarren zatian, datuak testuinguru batean ikusteko informazioa ematen da: irakasleak ematen dituen kreditu guztien kopurua, irakasgai bakoitzean ematen dituenak, irakasgaiaren antzintasuna eta irakasleak berak irakasten daraman urte kopurua, erabili den inkesta-sistema, etab.
- **Mailako taldearen txostena.**- Txosten honetan mailako talde batean (01, 02, etab. gaztelaniaz eta 31, 32, etab. euskaraz) ematen diren enbor eta derrigorrezko irakasgaietako irakaskuntza-egoeraren txosten guztien batezbestekoa adierazten da, grafiko eta zifra baten bidez. Mailako taldearen txostena GAUREn bidez eskuratzeko, programak beste aukera bat ere ematen du: lorturiko emaitzak ikastegi berean eskolak ematen dituzten beste irakasleek, titulazio berekoek eta EHUko


gainerako irakasleek lortutakoekin alderatzekoa, hain zuzen. Alderaketa bakoitza txostenaren eskuinaldean dagoen grafikoan jasoko da.

- **Irakasgaiaren txostena.**- Txosten honetan irakasgai berbera ematen diren irakasleek eskuratutako irakaskuntza-egoeraren txosten guztien batezbestekoa adierazten da, grafiko eta zifra baten bidez. Irakasgaiaren txostena GAUREn bidez eskuratzekoan, programak beste aukera bat ere ematen du: lorturiko emaitzak mailako talde berean eskolak ematen dituzten beste irakasleek, ikastegi edota ikasketa-plan berekoek eta EHUko gainerako irakasleek lortutakoekin alderatzekoa, hain zuzen. Alderaketa bakoitza txostenaren eskuinaldean dagoen grafikoan jasoko da.
- **Sailaren txostena.**- Txosten honetan saileko irakasgaietako irakaskuntza-egoeraren txosten guztien batezbestekoa adierazten da, grafiko eta zifra baten bidez. Sailaren txostena GAUREn bidez eskuratzekoan, programak beste aukera bat ematen du: EHUko gainerako irakasleek lortutakoekin alderatzekoa, hain zuzen. Alderaketa bakoitza txostenaren eskuinaldean dagoen grafikoan jasoko da.
- **Titulazioaren txostena.**- Txosten honetan titulazio horretako irakaskuntza-egoeraren txosten guztien batezbestekoa adierazten da, grafiko eta zifra baten bidez. Titulazioaren txostena GAUREn bidez eskuratzekoan, programak beste aukera bat ere ematen du: lorturiko emaitzak ikastegi berean eskolak ematen dituzten beste irakasleek eta EHUko gainerakoek lortutakoekin alderatzekoa, hain zuzen. Alderaketa bakoitza txostenaren eskuinaldean dagoen grafikoan jasoko da.
- **Ikastegi/Ordezkaritzaren txostena.**- Txosten honetan ikastegi/ordezkaritzako irakasgaietako irakaskuntza-egoeraren txosten guztien batezbestekoa adierazten da, grafiko eta zifra baten bidez. Ikastegi/Ordezkaritzaren txostena GAUREn bidez eskuratzekoan, programak beste aukera bat ere ematen du: EHUko gainerako irakasleek lortutakoekin alderatzekoa, hain zuzen. Alderaketa bakoitza txostenaren eskuinaldean dagoen grafikoan jasoko da.
- **Unibertsitate osoaren txostena.**- Txosten honetan UPV/EHUko irakasleek eskuratutako irakaskuntza-egoeraren txosten guztien batezbestekoa adierazten da, grafiko eta zifra baten bidez.


Irakasle bakoitzak berarekin zerikusia duten txostenak baino ezingo ditu ikusi: irakaslearen txostena eta dituen irakaskuntza-egoeren txostenak, baita beraren irakasgaiak, titulazioak, sailarenak, ikastegiarenak eta Unibertsitate osoak ere.

Txostenak eskuratzeko, hauxe egin behar da:


1. GAUREn sartzeko helbidea <http://gestion.ehu.es/gaur> da. Hizkuntza aukeratu behar dugu. Horren ondoren, hurrengo leihoa agertuko da, eta erabiltzaile-izena eta pasahitza eskatuko dizkigu. Irakasle bakoitzak erabiltzailearen kode bat eta pasahitz bat du, eta GAUREn egingo duen beste edozein gestiorako esleitu zaion berbera izango da.




2. Erabiltzailearen izena eta pasahitza idatzi ondoren, hurrengo pantaila agertuko da.



3. Ezkerreko arbolan, “Inkestak” klik egin behar da; gero, “Txostenak”; eta, amaitzeko, eskuratu nahi dugun txosten motaren izena.




- 3.1. Irakaskuntza-egoeren txostenak.- Irakaskuntza-egoeren txostenen atalean egingo dugu klik arbolan, eta pantaila bat agertuko da; irakaslearen datuak eta txostenak eskura dituzten kanpaina guztien zerrendak agertuko dira pantaila horretan. Aztertu nahi dugun kanpainaren identifikatzailean klik egin behar dugu, eta honelako pantaila zabalduko da.




Orain, eskuratu nahi dugun irakaskuntza-egoeraren txostena adierazi behar dugu, baita begiratu nahi dugun konparatiba-mota ere, eta "Irakaskuntza-egoeraren txostena eskuratu" laukian klik egin. Txostena kargatuko da, eta PDF batean ikusiko dugu.

- 3.2. Txosten agregatua (irakaslea, irakasgaia, taldea, titulazioa, saila, ikastegia, EHU).- Aztertu nahi dugun txosten agregatu motan klik egingo dugu arbolan, eta pantaila bat zabalduko da. Ikusi nahi dugun kanpaina aukeratu beharko dugu hor.



Kanpaina aukeratu ondoren, beste leiho bat agertuko da, erabili nahi ditugun aukeraketa-irizpideak adieraz ditzagun. Hurrengo leihoan sailaren txostena agertuko da, baina badaude antzeko beste pantaila batzuk ere, ikastegiaren, titulazioaren, irakasgaiaren, eta abarren txostenari buruzkoak.



Irakasleen irakas-jardueraz ikasleek duten iritziari buruzko inkestaren informazioa honako helbidean duzue: <http://www.irakaslana-ebalutzeko-zerbitzua.ehu.es/p081-8831/eu> edo hurrengo helbidera mezu elektronikoa bat bidali sed-iez@lg.ehu.es